

Alegiako abenturazalea

Joseba Jimenez
Thailandian
bizi da azken
19 urteetan ▶ 2-3



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteazkena ▶ 2006-07-26 ▶ IV. urtea ▶ 947. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Santio Egun borobila izan dute billabonatarrek

KROSA ▶ 6 mailetan banatuta, 140 korrikalarik hartu zuten parte atzo, 26. Santio Krosean

GAUR ▶ Haur jaialdia, bertsolariak, pilota, buruhandiak eta musika izango dira, besteak beste ▶ 4-5



Goian eta eskuinean, gazteboek eskainitako dantza emanaldiak. Ezkerrean, gazteak korrika, 26. Santio Krosean. NEREA URBIZU

ALEX MUJICA ▶ SUKALDARIA

«Jendeari ekarpenen bat egingo zion liburua idaztea izan da nire xedea»

Nafarroako sukaldaritzaz idatzi du leitzarrak ▶ 7



NEREA LIZARTZA

TOLOSALDEA ▶

Argaia, Roteta eta Etxeberria lehian

Astigarragako herri kirol probetan ariko dira gaur ▶ 5

JOSE INAZIO IMAZ ▶ SOZIOLOGOA



JON URBE / ARGAZKI PRESS

«Lanaldia hobe bizitzeko murriztu behar da»

Lanaldi murrizketari buruzko liburua egin du ibartarrak ▶ 6

ALBIZTUR ▶

Giro herrikoia Santa Marina jaian

Bazkaria eta herri kirolak izan ziren ▶ 5

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Alegiako Robinson Crusoe

Alegiatik Thailandiara joan zen Joseba Jimenez, eta baita han bizitzen geratu ere, uharte txiki batean; aurten 19 urte beteko ditu han, baina urtero etortzen da Euskal Herrira

IDOIA ETXEBERRIA - BERRIA

Alegiako Robinson Crusoeekin egin dugu hitzordua. Joseba Jimenez du izena, *Kaxkagorri* ezizena, eta ia hemeretzi urte daramatza Thailandiako uharte txiki batean katigatuta: Dortoka uhartean. Mundua ezagutzera joan, eta bertan gelditu zen. «Lekutan!», esango dute batzuek; «paradisuan!», beste batzuek. «Zeinek ez du txikitatik amestu izan uharte batekin? Hondartza, kokondoekin... Uharte horretan geratu ginen asko gustatu zitzaigulako, oso lasaia zelako. Pixka bat ihes eginez hemengo bizimoduari: autoa behar dela, garbigailua, telefona... Horiek denak utzi, eta gustura!».

Nola iritsi zen, baina, hara? Okina zen Joseba. Eta lana utzi zuen. Betidanik izan duelako bidaiatzeko grina. India, Sri Lanka, Filipinak, Indonesia, Japonia... «Brasil eta Peru ere ikusi nituen aldi batean... Baina gehienbat Asia aldea. Mundua ikusteko gogoa neukan, eta datarik ez neukan, noiz etorri edo». Koh Taora iristean, ba-kea aurkitu zuela dio. «26 urterekin, pixka bat gainez eginda nengoen, festak eta edaria, zigarroak, nekea... Eta halako toki polita topatu genuen...». Ordiziako lagun batekin, Jabik, eta berak bizilekutzat hartu zuten: «Elkarrekin ibili ginen bidaiatzen. Jabik lursail txiki bat erosi zuen, diru gutxiatik, eta etxe txiki bat egiten hasi ginen han». Orain ez dira batera bizi: Jabik ezkondata dago, eta uharte berean bizi bada ere, Josebak mutil alemaniar batekin partekatzen du etxea.

Thailandiara joateko asmoa zuela esan zuenean, jende askok: «Hi erotuta hago! Lana daukaku eta...». Beste batzuk inbidiaz ere bai, segurua. «Baina denek ez dute balio halako bizimodurako...». Eta ausardia ere behar da, dena utzita hain urrutiko joateko. Zazpi kilometro luze eta hiru zabal da Dortoka uhartea, Koh Tao. Hurrengo uhartea 50 kilometrora du, eta lur irmoa 80ra. «Gu iritsi gineanean jende askok ez zuen ezagutzen. Berde-berdea zen, hondartza zuri-zuriek. Koralez beteta dena, arrain asko... Beti gustatu izan zait igeri egitea, eta arrantzan hasi ginen han. Urpeko arrantza, arpoiarekin. Lagun batek erakutsi zi-



Joseba Jimenez alegiarra, aurten jaioterrira egun batzuetarako egindako bisitan ateratako argazkian. JON URBE / ARGAZKI PRESS

JOSEBA JIMENEZ ▶ THAILANDIAN BIZI DEN ALEGIARRA

«Hemengo bizimoduari ihes eginez joan nintzen: autoa behar dela, garbigailua, telefona... Denak utzi, eta gustura!»

«Erakusketa txiki bat jartzen dut hemen; herrikoek ikusi nahi izaten dute zer ekarri dudana: nagoen bitartean, azaldu egiten diet»

«Hemen jende guztia bizi gara estresak jota: hau egin behar duzu, bestea, lanpostuko ordutegiak... Hura lasaiagoa da»

dan eta gustua hartu nion. Hemen ere ibiltzen nintzen arrantzan, baina ez urpean. Gehienbat jateko izaten da, eta sobera daukaguna ematen diegu lagunei edo jatetxerari bati... Jatetxeak janaria ematen digute trukean. Saldu, oso gutxitan. Bidaia handi batean, akaso... harrapatutakoa ez dugu berriro itsasora bota nahi izaten, eta orduan bai, saldu egiten dugu, gasolina erosteko edo».

Oraindik ere egiten dituz bidaiak. Indonesiara eta Malasiara, batik batik. «Aurten Indonesiako uharte batera joan naiz. Baina egia da hasieran gehiago mugitzen nintzela orain baino». Hori bai, bizimodu ateratzeko modua ere bada bidaiatzea Josebarentzat: egurrezko zizel-lanak erosten ditu, eta gero Euskal Herrira bidali, saltzeko. Normalean maiztzen Balira joaten da, uztaila

arte. Gero, bi-hiru hilabeterako etortzen da hona, azaro aldera. Gabonetan. Gasteizko azokan salmenta-mahaia jarri zuen, azken urteetan legez. Alegian ere erakusketa txiki bat ipini ohi du: «Herrikoek ikusi nahi izaten dute zer ekarri dudana; ni hemen nagoen bitartean, esplikatu egiten diet».

Balin erosten dituz pieza gehienak: «Hango kalitatearekin egindakoak inon ez dituz aurkitu orain arte. Oso trebeak dira eskulanekin». Dantzariak, egurrezko zaldiak, figura abstraktuak, zilarrezko bitxiak... Denetik bidaltzen du Thailandiatik, kutxa handietan sartuta, itsasoz.

Hango bizimoduaren eta hemengoaren arteko aldea handia da, noski: «Erabatekoa! Hemen jende guztia bizi gara estresak jota: hau egin behar duzu, bestea... lanpostuko or-

dutegiak... Han ez. 'Gaur ezin badut egin, ba bihar egingo dut!'. Hura lasaiagoa da, eguraldia oso epela da beti...».

Gustura ibiltzen da Euskal Herrian ere, baina urteroko bisitarekin nahikoa izaten du etxemina asetzeko. Josebak ez du Thailandia uzteko batere asmorik, oraingoz. «Ni gustura bizi naiz!», dio barrez. «Gure gustuko gauza gehienak hantxe dauzkagu. Itsasontziak, itsasoa, lasaitasuna...». Nolanako den bere bizimodu hantxe? «Dauzkagu txalupa txiki batzuk, luzeak baina estuak. Gure arrantza eguna prestatzen dugu, edo bestela eguneko bidaiak ere egiten ditugu turistekin: koralak ikusi, snorkel egin... Ez da egunero-egunero izaten, eta gehienbat ezagunekin egiten dugu». Ez du garbigailurik etxean. «Ez telebista, ez irratia... Argindarra oraintxe

jarri dute. Horixe bakarrik; iturriko urik ere ez dugu. Kandlekin, kinkalekin... ibiltzen ginen. Tarteka, aldameneko jateak ponpatzen duenean bere putzutik, guretzako ere egiten du».

Aldaketa ugari

Koh Tao oso ederra da. Josebak dioenez, baina, are politagoa eta lasaiagoa zen duela hogeitau urte. «Ni iritsi nintzenean, ehun bat pottoka zeuden uhartean. Erdi libre bizi ziren; kokak menditik jaisteko erabiltzen zituzten, zakutoak jarrita. Oso polita zen 40-50 zaldi hondartzan korrika ikustea. Baina turismoak beste era bateko bizimodu ekarri du uhartera, eta zaldi horrek ez du balio ezertarako. Oso gutxi daude».

Hango jendea ere aldatu egin omen da. «Gu azaldu gine-



Dordoka uhartean (Koh Tao) bizi da Joseba Jimenez. Argazkian, arrantzatutako arrainarekin. HITZA



Bidaiari alegiarraren lehendabiziko etxea da goiko irudian agertzen dena. HITZA



Goitik behera, Jimenezen etxetik begiratura agertzen den ikuspegia, hark izandako ontzietako bat, eta Thailandiako irudi bat. HITZA

nean, oso jatorra zen. Orain aldatzen hasita daude; beraiek inbersioak egin behar izan dituzte turismoa mantentzeko. Dirua gora eta behera... orain zakarxeagoak dira. Esaten dute ere turismoak beti ez dituela jenderik onenak ekaritzen. Batzuetan izaten dira kalamitate batzuk, eta bertako jendea gutxiespenarekin tratatzen badute... ba, normala, haserretu egiten dira! Batekoz beste, aldatu egin dute beraien izaera».

Lehen baino dordoka gutxiago dago Dordoka uhartean. Aldaketak «ikaragarriak» izan direla dio Josebak: «Bai uharte barruan, bai itsasoan. Turismorik handiena urpekaritza egitera doana da. Hain-

beste itsasontzi, jendea urpean... kalte handia egin die koralari. Denetik pixka bat, baita azpiegiturak ere: bide berria egin dute menditik behera; euri handiak egiten dituenen, lokatza jaisten da itsasora, eta horrek koralak ito egiten ditu».

Hemengo bizimodua ere aldatu dela uste du Josebak: «Gobernuek-eta Europaren mailan jarri nahi dute; presioaren menpe jartzen dute jendea. Gauzak zaildu egiten dituzte lasai bizitzeko. Autoa dela, hipoteka... Ni joan nintzenez beste era batekoa zen oraindik. Jende asko ibiltzen zen kalean; orain, oso gutxi. Ez dakit ekonomiarengatik den, dirua beste gauza batzuetan gastatzen delako den...».

Tsunami gertatu zenean

Tsunami gertatu zenean, «gure uhartea libratu egin zen. Ni orduan hemen nengoan, Gasteizko azokan. Lagun batek hots egin zidan: 'Halako gertatu dela!' Esan nion, lasaitzeko, hori beste itsasoa da, eta gure aldera ez zela pasatuko. Thailandian oporretan zegoen jendea gure itsaso aldera joan zen, lasaia egoteko. Hurrengo bi asteetan igoera handia nabaritu zen, eta gero betikora itzuli zen berriz ere».

Tsunamiaren eragin kaltegarriez ere hitz egin dugu: «Tsunamiak ez dio arrainari

zuzenean eragiten, lekuari bakkirik. Koralak-eta olatu handiek puskatu egiten dituzte. Koralak itsas azpiko oinarria dira: arrain asko hil egiten dira, edo joan beste leku batera. Katea puskatu egiten da. Tsunamiaren kalte handiena hori izan zen Thailandian. Baina ura garbi badago, hirutik bost urtera koral indarberritu egiten da. Ni lehenengo aldiz Koh Taora joan nintzenez, 1989. urtean, tifo baten atzetik izan zen, eta koral asko hautsita zeuden. Hiru-lau urtera oso politak jarri ziren».

Eta hegazti gripearen eragi-

nik sumatu al du? «Han, egia esan, igual-igual. Guk gehiena arraina jaten dugu. Eta gripe hori leku jakin batzuetan gertatu da, eta arduradunek oitlaskoak bildu eta akabatu egin dituzte, kontrol batekin. Gure eskualdean behin ere ez da ezer ere gertatu. Iparraldean gertatu da gehienbat, eta ez hemen aditzen diren gauza handiak!».

Hala, kritikoa da komunikabideen jokabidearekin: «Hemen beldurra zabaltzen dute, berria ematean. Berria nola eman, jendeari pentsaera asko aldatzen zaio!».

VILLABONA ▶ SANTIO JAIAK

Santio Egun biribila

Egunpasa bete izan zen atzokoa, eta dantzariak eman zioten egun beroari kolorea, auzo guztietan txistulariekin batera saioa eskaini zutelarik



Dantzari bokiek auzoetan egin zituzten saioak. Arratsaldean, aldi, emanaldi Txistulari plazan. ©. URZUA

NEREA URZUA

Egunez jai giroa gustukoago dutenez, egun aparta izan zen atzokoa. Villabonako Santio Jaiean, Gainera, Santio Egun handiena izaki, jende andana izan zen egun osoan. Goizean goiz Tolosaoko dultzaineriek jarri zuten festako doina, eta ondoren, plaza hildu ziren dantzari txiki guztiak auzo auzo joan ziren, haien dantzak taldeka erakusten. Dantza Debaño bandaren doinu alaiarekin uztartu ziren ondoren, egueztirik aurrera. Herriar ugari erakarri zituzten dantza eta musika emanaldi hauek.

XXVI. Santio Kroa

Gauzez ibiltako gautxoriak etxera bueltatzeko orduan, Zurbeltz Elkarteak antolatzen duen kroa hasi zen. Milla ezberdinetako lasterlariak izan ziren ikusgai, 6 mila ezberdinetakoak, hain zuzen: bakoitza egin beharreko ibilbidea, noski, desberdina zen. Txikiak nek bueltatzen txiki bat egin zuten, eta infantriek eta kadeteek, 2 kilometro eta erdi egin zituzten korrika. Seniorrek eta 40 urtetik goragokoei 7 kilometro eta erdi

EGITARAUA ▶

- OFIZIALA**
09:00. Diana-kalejira Tolosaoko dultzaineroen eskutik.
- 10:00. Buruhandi eta erraldoiak, Loatzo Musika Eskolako trikitilariak.
- 11:00. Haur Jaialdia Auskalo taldearekin, Txistulari plazan.
- 16:00. Mus Txapelketa herrikoia Berrura plazan.
- 16:00. Sifonoiak-haur jaialdia Auskalo taldearen eskutik, Txistulari plazan.
- 16:00. Ondoren, Enesarg taldearekin.
- 18:00. Joki Garbi pilota partida Iparraldeko taldeekin.
- 19:00. Futbito Txapelketa txistulari plazan.
- 23:00. 52 plaza ezetz gizon probak, herriko bi taldeekin.

ONDDO GAZTE ASANBLADA

22:00. Bertso kabareta gaztebean. Ondoren, emakume ringa.

egin zituzten, eta denera, 140 korrikalarik hartu zuten parte aurretik 26. edizioa beteaz duen kroa. Hauxe izan ziren irabazleak: Benjaminetan, Larragoiti Andoni Urbien, eta herriko lehendabizikoa Iker Merino; alebinitan, Aneakoko Kepa Izaguirre irabazi zen lehena, eta Villabonakoaren artean Eneko Alkorta. Infantrietan, Tolosaoko Unai Arroyo eta herriko Jokin Olasgi izan ziren lehena; kadeteetan, Eneko Arin libellonatarra; 40 urtez azpikoaren artean, Eduardito Marsok irabazi zuen, eta lehena ere emakumea Izaskun Zubeldia izan zen. Villabonako. Herriko lehena, berriz, Jon Apeniba. 40 urtetik gorakoaren artean, maila ona izan zen nagusi, eta Zuzurkillo Lorenz Robles izan zen helmuga irabazi lehena. Jose Iabier Maiz herriko lehendabizikoa geratu zen, eta emakumeetan, Mari Karmen Garcia lehena, eta herrikoia, Lourdes Sarasa.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Etzabada. Nora gomendatuko zenuke oporetan jolastu? Zergatik? Zein izan da zuk bestak dituzun lekuen artean gustukoena? Sar zail ez gure webgunean, zure iritzirik emateko. Hainbat gai daukazu aukeratzeko, eta besteekin aldatzeko.



Kroa. 140 korrikalari izan ziren Villabonako kroaen. Adina eta sexu ez zen ontopoa izan, korrikalari guztien artean adinduek 67 urte zituelarik eta gaiteenak, berriz, 4 urte. ©. URZUA



Hamaketa. Korrikalarien saioa bukatuta ondoren, Zurbeltz elkarteko hamaketa. ©. URZUA

HERRI KIROLAK ▶

Eskualdeko 3 ordezkari, 3 probetan

Argaia, Roteta eta Etxeberria gaur, Astigarragan, herri kirolean

ESTI EZIZUA

Gaur, Astigarragako Proba plazan, 18.30etik aurrera, herri kirol emandria izango da. Hala, Gipuzkoako Federazioak, Astigarragako jai Batzordearen laguntzarekin antolatuta, Gipuzkoako mailako hiru txapelketa ezberdin jokatuko dituzte: alde batetik, lasto altxatzearena, besteetik, trontzalarrena, eta azkenik ingudearrena. Hiru norgehiagoketan izango da eskualdekoen ordezkaritza. Lasto altxatze txapelketan Pello Argaia zuzurkildarra

kontra. Bi minutuko saioan 75 kiloko pordela zuzurkildarra arkitzen da. Lehorretako Igor eta Aitor Enasola arituko dira, eta besteetik, Zarauzko, Eugenio eta Inaki Orbeago. Eta azken bileretan, Aizko Andoni Reizalek eta Aitzakio Aitor Rotetak osatutako izango da. Hauxe egin beharreko lana ondorengo izango da: kama erdiko (1,25 metro) pago egurrari, etzandako eran jarrita, hamabi ebaketa egin behar da. Eta ondoren, sei ebaketa zutikako eran jarrita.

keta jokatu dute toki eta garai berean. Berriz, hiru bikote hartuko dute parte: alde batetik, Lehorretako Igor eta Aitor Enasola arituko dira, eta besteetik, Zarauzko, Eugenio eta Inaki Orbeago. Eta azken bileretan, Aizko Andoni Reizalek eta Aitzakio Aitor Rotetak osatutako izango da. Hauxe egin beharreko lana ondorengo izango da: kama erdiko (1,25 metro) pago egurrari, etzandako eran jarrita, hamabi ebaketa egin behar da. Eta ondoren, sei ebaketa zutikako eran jarrita.

ALBIZTUR ▶ JAIAK



Giro herrikoia nagusi, Santa Marinako jaiak

E. Eziza • Urtero legez, jende ugari bildu zen Igandean, Albizturko Santa Marinako jaiak. Bazkari ederraren ondoren, herri kirol saio politak gozatu ahal izan zuten bertako hurbildutakoek. Hala, irudian ikus ditezkeen bezala, Miren Urkio eta Aimar Irigoin aritu ziren herriko gasteekin batera.

EUSKAL JAIA BILLABONA 2006

29

Errota kalea, 6 • 2. ezk • BILLABONA
Tel.: 943 69 31 01 Fax: 943 69 31 01 • 609 13 37 13

JANARIDENDA PILAR

Larrea, 9 • Villabona
Tel.: 675 713637

Jai zortontseak opa dizkizue billabonatar guztiak!

MAPPFRE

berria, 15 • Villabona
Tel.: 943 69 22 19

GOITZA OROKORREAN

INDUSTRIAL • FATXADAK • FATXADAK ERABERRITZEKO • HARRIA GARRITZEKO...

Errota kalea, 6 • 2. ezk • BILLABONA
Tel.: 943 69 31 01 Fax: 943 69 31 01 • 609 13 37 13

BRONTXILLO

Hortzegie Arraindegia

Tel.: 943696828
Somio, 4 Villabona

Gara Somio Teiki

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Etzabada. Nora gomendatuko zenuke oporetan jolastu? Zergatik? Zein izan da zuk bestak dituzun lekuen artean gustukoena? Sar zail ez gure webgunean, zure iritzirik emateko. Hainbat gai daukazu aukeratzeko, eta besteekin aldatzeko.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko laboreak. Balerako. Lanegun osoak. 677 32 99 34.

SALONI

Txakurkumeak. Artzai txakurkumeak salgai. Hilabete eta aho bakoitza. 636 17 36 24.

BESTERIK

Txakurkumeak. Artzai txakurkumeak oparitzen ditut. Gaurer deitu. 948 50 44 81.

Aranburu ARDOTEGIA

ARDOAK • SAGARDOA • KONTERBAK • LIKOREAK, etab. Etxerariako Zerbitzua

Santo kalea, 4 VILLABONA • Tel.: 943 69 13 24

EIZMENDI

ERBATEGIA • IRIOLDENDIA

Kirol goiok kongontzeko kontegia • Auker handia eskopeta eta karturtxotan

ONDO PASA JAIEGAN

Berria, 19 • Billabona • Tel.: 943 69 26 23 • Fax: 943 69 30 44

N. hildak

Gora Santioak!

Tel.: 943 69 64 84
Fax: 943 69 23 59
Larrea auzoa, 8 20150 BILLABONA

ONDO PASA JAIAK

LARREA

• gozotegia • gosariak • kafe dastaketa eta salmenta

Okundegia

LARREA auzoa, 8A • Tel.: 943 69 11 05 • BILLABONA

JOSE INAZIO IMAZ ▶ SOZIOLOGOA ETA EHU-KO IRAKASLEA

«Enpleguagatik ez ezik, lanaldia hobeto bizitzeko murriztu behar da»

'Lanaldi murrizketari buruzko eztabaida, 1995-2005' liburua publikatu du Jose Inazio Imaz soziologo ibartarrak

LEIRE OLAETXEA / BERRIA

Diru bakarria dagoen bezalaxe, lanaldi bakarria aldarrikatu du Jose Inazio Imaz Bengoetxeak (1972, Ibarra). Txinatarren soldatei erreparatzea «tranpa egitea» dela gaitzetsi du, eta gizartea antolatzeke beste modu batzuk badaudela azpimarratu du. «Soilik 20 urte dauzka neoliberalen buelta honek». *Lanaldi murrizketari buruzko eztabaida 1995-2005* liburuan lanaldiaren murrizketak gizarte aldaketa eragingo duela azaldu du.

Enpleguak sortuko zituelako aldarrikatu izan da, batez ere, 35 orduko lanastea. Indarrean izan denean, lortu al du helburua?

Bai; ez da eragiketa matematikoa, baina beti badago tarte bat. Frantziako datu ofizialak hortxe daude. Lan Ministerioaren arabera, 300.000 lanpostu sortu ziren, zuzen-zuzenean, 35 orduko lanasteari esker.

Frantzia eta Alemanian enpresaburuek lanastea luza zteaz eraztu egin da, ordea. Zer gertatu da?

Biak bereizi behar dira: Frantzia legez ezarri zen 35 orduko lanastea, eta Alemanian, negozio kolektiboz. Zer gertatu den? Ba, besteak beste, 2004an Europa ekialdera hedatu zen globalizazioa, hortxe daude Txina eta India... Egoera horretan, enpresek arrautzopila irauli egin dute. 35 orduak funtzionatu dutela ukatu, eta 40 orduko lanastea aldarrikatu dute. Egia da egungo egoeran gero eta zailagoa izango dela



JON URBE / ARGAZKI PRESS

herrialde bakarrean 35 orduak edukitzea, baina Frantzia eta Alemanian egon zen urteetan emaitzak ez ziren txarrak izan.

Eta errealista al da orain 35 orduko lanastea eskatzea?

Bai, baina beste neurri sorta zabalago baten barruan egonda. Globalizazioa bera eta gizarte egitura zalantzan jarri beharko lirakeke. Epe motzari erreparatzen diogu, batik bat; eta egia da txinatarrek astean 50 ordu lan egiten dituztela, hi-

lean 120 euroko soldata jasoz, baina hori planteatzea tranpa egitea da. Lehia horrek ez dauka zentzurik, eta epe motzera borroka hori galduta dago.

Aurrerago begira, zer egin daiteke?

Beste zerbait edo beste era batean ekoitzi beharko dugu, teknologia berriak baliatuta, adibidez. Herrialde guztien lan baldintzak parekatu beharko lirakeke, edo gutxienez Europakoak. Diru bat jarri den bezala-

xe, jar dezatela lanaldi bat. Bestela, Volkswagenean mehatxu egingo du Nafarroatik Eslovakiara eramango duela ekoizpena; eta horrek baldintzak onartzen ez baditu, Errumaniara ordutan.

Lanaldia murriztea 35 orduko baino gehiago da.

Hori da aldarrikapen ezaguna, baina badaude beste hainbat kontu. Borondateko denbora partziala, baimen gehiago, aurre erretiroa... Bi gizarte ikuspegi daude: neoliberalismoa eta ikuspegi kritikoa. Gasolina zerbitzugunean zerbitzu automatikoa emateko makina bat jartzen badute, adibidez, bi aukera daude: langileari sobran dagoela esan eta kalera botatzea, edo lan horretan aurreztuko den langilearen lana baliatzea lan talde osoak lan gutxiago egiteko. Munduak ez du lehen bide hori hartu orain, baina norabidea aldatzen has-teko aukera bat da. Lanaldi murrizketa, gainera, enplegua sortzeko ez ezik, bizi-kalitatea hobetzeko ere bada. Horrek behar du orain aldarrikapenaren justifikazio izan. Hortxe daude estresaren aurkako borroka, familia eta lana bateratzeko ahaleginak... Neoliberalismoak enplegua sortzea lortu du, gainera, enpleguaren kalitatea beste kontu bat bada ere. Hirugarren helburua gizarte aldaketa da. Gauza gehiago eduki beharrean, nahiago dugu denbora gehiago eduki, eta betiere, gero eta hobeto bizitzeak izan behar du xedea.

Zenbat gazteri eman dio bihotzekoak estresagatik...

Bai, bai...Eurostaten arabera, EBn 40 milioi biztanle bizi dira estresatuta. Larunbatetan jai egitea lortu zen antzera, beste jauzi historiko bat egin behar da orain lanaldi murrizketarekin. Egin denean ondo ateratzen dela uste dut, baina buelta ematea lortu dute enpresek.

Ez al zaizu iruditzen gizarteak ere baduela lan kontuekin nolabaiteko beldur bat?

Bai, ideia hori azpimarratuko nuke, baina beldurra erabili egiten dela erantsiko nuke. Zintzo ibiltzeko ohartarazten dute

enpresaburuek. Industrializazioa hasi zenetik beti izan da horrela, eta langileek borroka bidez lortu dituzte gauzak. Orain ere ematen du apur bat mugituz gero zerbait gertatuko dela, lana galtzeko arriskua badagoela. Euskal Herriak galdutako egingo duela... Sakonean, gizarte ikuspegi desberdinak dira. XX. mendean ongizate estatua lortu zen, baina aurrerapausoen sasoia 70eko krisialdiak hautsi zuen. Beren hipotesiak zabaltzeko aukera hori baliatu zuten neoliberalak, eta, beraz, soilik 20 urte dauzka neoliberalen buelta honek. Gizartea beste era batera antola daiteke.

Euskal Herrian lortzen da zenbait sektoretan hitzarmen kolektiboen bidez lanaldia murriztea. Zertan gaude hemen?

Edalontzia erdi hutsik ikusi nahi izanez gero, 35 orduko helburua ez dela bete gaitzetsenezake. Ez gaude Frantziaren eta Alemaniaren mailan; baina Euskal Herria puntapuntan da. AEBetan eta Japonian, adibidez, lanaldia luzeagoa da. Baihorrek hori erantzungo dute; punta-puntan gaudela, eta gutxienez apurka murrizten dela lanaldia.

Zer pentsatu behar du, hala ere, tailer txikian egunean hamar ordu lanean egiten dituen mekanikariak udaltxe-asteen 35 edo 32 egiten dituen funtzionarioari buruz?

Zergak oker erabiltzen direla esatea espero duzu, agian. Hori egitea tranpa da. Frantzia, 35 orduen legetik kanpora gelditu zen administrazio publikoa, baina administrazio publikoa eredu izatea ona da. Denok batera gauzak egiteko zain baldin bagaude, haizulotetan bezala egongo ginateteke, bisonteen atzetik korrika. Ez ditut desberdintasunak defendatuko, baina ez zait txarra iruditzen abangoardia bat izatea. Eredu izan, eta joan daitezela atzetik enpresa handiak, sektore indartsuenak. Autonomiak, konpainia txikiak, nekazariak... Ez dira kolpetik sartuko, baina ezin gara denok mugitzeke zain egon.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitz.a.nfo

hilberriak ▶

Xixili Esteibar Azkue

(Jexux Urbietaren alarguna)

ATZO hil zen, Azpeitian, 71 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Bizitzako lanak bete dituztu
apal eta zuzen
ekin horren loreak jasotzen ditugun
zuk orain hemen

Zure bilobak: Itxaso, Amaia, Aritz, Ane, Jone, Nahia eta Aimar.

Haren animaren alde otoi z bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ZUMAIKO San Pedro Apostol parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilbidea: Olazko Amaren Plaza 7-3 (Azpeitia)
oharra ▶ Hilbidea Zumaiako Tanatorioan egingo da.

ZUMAILA, 2006ko uztailaren 26a



ALEX MUJIKA ▶ SUKALDARIA

«Jendeari ekarpenen bat egiteko liburuia idaztea izan da nire xedea»

Pasa den hilean aurkeztu zuen Alex Mujika leitzarrak 'El ayer y hoy de la cocina navarra' liburuia; Nafarroako sukaldaritzaren 25 errezeta konparatzen ditu

NEREA LIZARTZA

Alex Mujikari aspalditik dator kio sukaldari sena, urteak baitaramatza alde batetik bestera sukaldari lanetan. Egun, Leitzan duen jatetxean lan egiteaz gain, Nafarroako Jatetxeen Elkarteko lehendakaria ere bada. Lanean buru belarri badabil ere, izan du tarterik TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN solasean aritzeko.

Nolatan otu zitzaizun liburu hau idaztea?

Bi xede nagusi nituelako. Alde batetik, nafar sukaldaritzak dituen errezetarik garrantzitsuenak bildu nahi nituen. Bestetik, oster, azken aldiaan bolo-bolo dabilen galderari erantzun nahi nion, hau da, nafar sukaldaritzak geldirik dagoen galdeztzen dutenei ezezko erantzuna eman nahi nien.


Zer dela eta jaso dituzu lehenengo eta oraingo errezeten gaineko desberdintasunak?

Garbi neukan ez nuela merkatuan beste liburu bat izatea nahi; identitate pixka bat eman nahi nion. Izan ere, gaur egun ospea duten sukaldari gehienek liburuak idatzi dituzte eta horiekin konpetitza oso zaila da. Halere, niretzat liburu hau aurkezpen txartel baten modukoa da; jatetxea izateaz gain, liburu bat ere idatzia izateak ospea ematen baitu. Lan konputuengatik sarritan kanpora joatea egokitzen zait eta liburu hau eramanez gero, badakite nor naizen eta zertan egiten dudan lan zehazki.

Noiztik zabilta sukaldaritzaren munduan murgilduta?

Hogeita hiru urte baino gehiago dira sukaldaritzan hasi nitzela. Donostian egin nituen sukaldari izateko beharrezkoak diren ikasketak eta handik Madrilera joan nintzen lan bila. Madrilen egon nintzen urteetan zehar asko ikasteko parada izan nuen, jende ezberdinarekin kontaktuan jarri, kultura ezberdinetako sukaldaritzak ezagutu, etab. Niretzat oso esperientzia aberasgarria izan zen. Ondoren, berriro Euskal Herrira etorri nintzen eta hemen hasi nintzen lanean. Geroxeago orain dudana jatetxea hartu nuen eta ordutik buru-belarri nabil hemen lanean.

Munduan zehar ikusitakoak



Alex Mujika leitzarra bere jatetxearen parean aurkeztu berri duen liburuia eskuetan duela. NEREA LIZARTZA

Ba al du nolabaiteko oihartzunik liburuan?

Ez, inondik inora. Liburu honek Nafarroako sukaldaritzak lehen zuen egoerarekin konparatuz orain duen egoera aztertzea nahi izan dut, desberdintasun nagusiak jaso, besterik gabe.

Zein dira denborak utzi dituen desberdintasun nagusiak?

Nik batik bat bakarria jaso dut: janariak aurkezteko modua. Lehen askoz era arruntagoan aurkezten ziren janariak, itxurari garrantzia gehiegirik eman gabe. Orain, oster, itxurak hartu du garrantzia gehien. Beraz, liburuiko orri batean lehen zuen itxura jarri dut eta aldamenen orain duen itxura. Argi dago ontziteria aldatzeak

itxura desberdina ematen die la janariari. Gainera, hainbat olerkirekin ere hornitu nahi izan ditut errezeta asko, irakurlearentzat entretenigarriagoa gerta dadin irakurketa.

Eta, sukaldean aritzeko sarritan beharrezkoak diren trikimailuak ere jaso al dituzu?

Oso gutxi. Errezeta batzuekin batera badatoz bat edo beste baina, ez da izan hori liburuaren helburua eta beraz, oso gutxi daude.

Zer moduzko harrera izan du publikoaren artean?

Oraingoz nahiko harrera ona izan du. Ekainaren 7an aurkeztu nuen Iruñeako merkatal zentro batean eta ordutik jende asko ari da interesatzen liburuaren gaineran. Gainera, ez Nafarroa mailan bakarrik, Eus-

kal Herriko gainerako txokotan ere harrera oso ona izan du liburuak. Datorren irailean liburuia Madrilen aurkezteko asmoa dut; horrela, Nafarroako sukaldaritzak Euskal Herri

kanpora ere sustatzea lortuko dut.

Zein dira sukaldean aritu behar duenak kontuan hartu beharrekoak?

Hiru dira nagusiki kontuan izan beharreko gomendioak. Lehenik, janariaren antolamendua behar da; janariak nondik datozen jakin eta kalitatezko janariak erabiltzen saiatu —kalitateak ez du zertan prezioarekin zerikusirik izan—. Ondoren, produktuak alferrik gal ez daitezen antolatu egin behar dira. Kontu handiz ibili behar da behar diren tokian gordez, bestela, behar ditugun agian zakarrontzira bota behar harko ditugu errezetarako erabili beharrean. Azkenik, egin dako ahal bezain laster jaten saiatzea beharrezkoa da. Izan ere, gero eta beranduago jan gero eta zapore gutxiago izango baitu egingako errezetak. Halere, janaria prestatu eta jateteko astirik ez badugu, badaude hainbat teknika ondo kontserbatzeko: hutsean ontziratzea da hoberena; modu horretan, nahi adina denbora iraungo digu prestatutakoak zaporerik galdu gabe.

Lehenengo liburuia idatzi duzu; ba al duzu eskuartean beste proiekturen bat?

Ba, egia esan bai. Izan ere, liburu honekin batera beste bat kaleratzeko asmoa nuen, baina, argitaletxean esan zidaten hobe zela bananduta kaleratzea gai desberdinak jorratzen direlako. Beraz, guztia ondo ateratzen bada, datorren urrian bestea kaleratuko dut.

Zein izango da kaleratzeke duzun liburu horren haria?

Janariaren birziklapenaren gainekoa izango da. Batzuetan janariak prestatzen ditugu, soberatu egiten zaizkigu eta ez dugu jakiten zer egin sobera horiekin. Liburuak horiekin prestatu daitezkeen platerak izango ditu ardatz.

Euskaldunak jale bikainak gara, baina, zer moduz moldatzen gara sukaldean?

Oso ondo. Sukaldaritzaren gaineko kultura dugu hemen eta horrek sukaldari bikainak egiten gaitu.

tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN praktikak egin nahi?

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioaren lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua

Urritik abendura aritzeko lanaldi erdi

Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:
Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldekohitza.info



AGENDA ▶

JAIAK

Villabona. Santioetako egitaraua:09:00. Diana-kalejira Tolosako dultzaineroen eskutik. 10:00. Erraldi eta buruhandien irteera Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilariekin. 11:00. Haur Jaialdia Auskalo taldearen eskutik (puzgarriak, tailerrak...), Txistulari plazan. 18:00. Skatroiak haur jaialdia Auskalo taldearen eskutik, Txistulari plazan. Ondoren, Eresargi txiki abesbatzaren kantaldia leku berean. 18:00. Joko Garbi pilota partida Iparraldeko taldeekin, plazan. 19:00. Futbito Txapelketaren finalak, plazan. 22:00. Onddo Gazte Asanbladak antolatuta, Bertso kabareta izango da Gaztetxean. Ondoren, Emakume ring-a plazan. 23:00. 52 plaza ezetz gizon probak, herriko bi taldeekin.

DEIALDIAK

Villabona. Hilaren 29an, larunbata, ospatuko den Euskal Jaieren barruan, Zikiro jatea izango da, eta joan nahi duenak, txartelak salgai ditu ostegunerarte. **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak Pirinioetara, La Munia ingurura, irteera antolatu du hilaren 29, 30 eta 31rako. 21 urtetik azpikoek %20ko deskontua izango dute. Informazioa 637 830380 zenbakian. **Tolosa.** Kirol elkarteek 2005eko memoria hilaren bukaera baino lehenago aurkeztu beharko dute Udalaren diru laguntzak jaso ahal izateko.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea 20. 943 67 60 13.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 32. 112.

IRRATIA

Txolarre irrátia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.
18:00-19:00. Iraulí uhinak.
21:00-22:00. Bide okerretik.
22:00-23:00. Street noise.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Cardenas irabazle Ordizian

TOLOSALDEA ▶ Barloworld taldeko txirrindulariak ihes egin zuen Mandubiatik gora, tropela atzean utziz, atzo eskualdetik igaro zen 83. Ordiziako Klasikan



Amets Txurruka Barloworld taldeko txirrindularia nagusitu zen Albizturtik gorako bidean. E. EZEIZA



Alde egindako txirrindularien ondoren, gainontzekoak tropelean igo ziren Albizturtik gora. E. EZEIZA

ERREDAKZIOA

Hiru egun besterik ez dira igaro Frantziako Tourra amaitu zutenean, baina euskal txirrindulariek beste proba bat izan zuten atzo. Hala, atsedetik hartzeko denborarik gabe, Ordiziako Klasika korritu zuten.

Proba honen ibilbidearen zati handi bat Tolosaldean kokatzen da; besteak beste, Alegia, Abaltzisketa, Tolosa, Albiztur eta Bidegoian igarotzen dituelarik. Gainera, eskualdeko txirrindulariek ere hartzen dute parte proba honetan. Horien artean, izan zen, hain zuzen ere, Joseba Agirrezabala gaztea.

Felix Cardenas txirrindulari kolonbiarra gailendu zen 83. edizio honetan. Mandubiako gainean gora ihes egin zuen, tropela atzean utzita, eta lan bikaina eginez, berea izan zen garaipena. Bigarrenari lau segundoko alde atereaz, Barloworld taldeko txirrindularia aurreratu zen Ordizian.

Kolonbiarraren atzetik, beste bi txirrindulari sartu ziren, hauek ere lehen tropeletik ihesean. Sprintean, Massi taldeko Alberto Rodrigex nagusitu zitzaion David Latasa nafarrari. Azken hau izan zelarik, helmugara iritsi zen lehen euskalduna. Beste sarrietan, Andalucia taldeko Mario Sanchezek eraman zuen tarteko helmugena. Mendiko Saria berriz, Relax taldeko Jose Miguel Eliasentzat izan zen. Sanchez Pimientak puntu gehiago izan arren, ez baitzuen lasterketa amaitu. Azkenik, Errebelazio Saria Amets Txurrukak jaso zuen.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...